

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 765/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, hasierako agiria dela-eta egondako entzunaldian eta hura jendaurrean jartzeko epean aurkeztutako alegazioei erantzuten diena eta onartzen duena ES2110018 "Arabako hegoaldeko mendilerroak" KBE kontserbazio bereziko eremuaren eta HBBE hegaztientzako babes bereziko eremuaren jarraibide eta neurrien behin betiko agiria, III. eranskin gisa txertatzeko naturagune babestu horren izendapen agiriari

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluaren 2000ko azaroaren 28ko eta 2003ko ekainaren 10eko erabakien bidez, eta bat etorritik Arabako Foru Aldundiarekin, hegaztientzako babes bereziko lau eremu izendatu ziren, besteak beste, Arabako Hegoaldeko Mendilerroa izeneko HBBEa (ES0000246) eta, bestalde, Arabako 25 gune proposatu ziren batasunaren garrantzizko leku izendatzeko, besteak beste, Kantabriako Mendilerroa (ES2110018). Proposamen hori Europako Batzordeari aurkeztu zitzaion, eta hark, 2004/813/EE eta 2006/613/EE erabakien bitartez, eskualde biogeografiko atlantiarrari eta mediterranearrari dagozkion BGLak onartu zituen, besteak beste, naturagune hori jasotzen zuena.

Bat etorritik Kontseiluaren maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauak, habitat naturalak eta basa fauna eta landaredia zaintzeko buruzkoak, 4. artikuluan eta abenduaren 13ko 42/2007 Legeak, natura ondare eta biodibertsitatearenak, 44. eta 45. artikuluetan xedatutakoarekin, autonomia erkidegoek, jendaurrean jartzeko prozeduraren ondoren, BGL guztiak kontserbazio bereziko eremu (KBE) aitortuko dituzte, eta beharrezko zaintze neurriak ezarriko dituzte, eremu horietan dauden habitat natural moten eta espezieen eskakizun ekologikoei erantzuten dietenak. Kontserbazio neurriek berekin ekarriko dituzte kudeatze plan edo tresnak eta erregelamendu, administrazio edo kontratu neurriak.

Halaber, ekainaren 30eko 16/1994 Legearen testu bateratuak (natura babestekoa, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuta) 22. artikuluan prozedurak definitzen ditu, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek KBEak izendatzeko eta dagozkien arauak eta kudeatze jarraibideak egiteko.

Horiek horrela, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailak, azaroaren 26ko 10/2016 Dekretuaren bitartez, ES2110018 BGLa kontserbazio bereziko eremu izendatu (KBE) zuen eta hura handitu egin zuen aipatutakoari ES000246 Araba Hegoaldeko Mendilerroak HBBEa gehituz; alegia, bi eremuak eta haien izenak bateratu egin ziren. Era berean, 10/2016 Dekretuaren bidez, hain zuzen ere haren II. eranskinaren bidez, bi naturagune horietarako zaintza arau eta helburuak onartu ziren (ALHAO, 33. zk.a, 2016ko otsailaren 18koa).

Izan ere, 10/2016 Dekretuaren 3.2 artikulua hau xedatzen du: "Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendaritzaren Ebazpenak ezarrita, Arabako Foru Aldundiak eremu hori kudeatzeko onartu dituen kudeaketarako jarraibideak eta neurriak Dekretu honen eranskin gisa argitaratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateratua onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 22.5 artikulua ezarritakoari jarraikiz."

KBE izendatzeko prozesu horretan, Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren maiatzaren 26ko 131 Foru Aginduaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaion Arabako Hegoaldeko Mendilerroak KBE eta HBBE (ES2110018) eremuaren kudeaketa zuzentzarau eta neurrien agiriari, zeina entzunaldiko izapidetan eta jendaurrean jarri baitzen bi hilabetez.

Jendaurrean egon den eta entzunaldiko izapideak iraun duen bitartean, alegazio idazki bakar bat aurkeztu da, hain zuzen ere erakunde honek:

— UAGA-Arabako Nekazarien Elkartek. Erakunde horren idazkiak 2016ko abuztuaren 10ean izan zuen sarrera erregistroan.

Agiria aztertuta, Natura Ondarearen Zerbitzuko Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atalak txostena idatzi zuen alegazio eta iradokizunei erantzunez, haietako batzuk onartuz eta, ondorioz, kudeaketa agiriari beste idazketa bat emanaz. Erabaki honek osorik onartzen du aipatutako txostena.

Natura Ondarearen Zerbitzuko Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atalaren txostena ikusi da. Txosten horretan aipatutako alegazioei erantzuten dien agiria jasotzen da, bai eta proposatu ere babestutako naturagune horren kudeaketa zuzentarau eta neurriak behin betiko onartzea ere.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

LEHENENGOA. Erantzutea “Arabako Hegoaldeko Mendilerroak” Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) eta Hegaztien Babes Bereziko eremuaren (HBBE) “zuzentarauak eta neurriak” (ES2110018) izenekoaren hasierako agiria jendaurrean egon den eta haren entzunaldi izapideak iraun duen bitartean aurkeztutako alegazioei, Natura Ondarearen Zerbitzuko Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atalaren txostenak adierazitakoak bere horretan baietsiz edo ezetsiz. Txosten hori bere egiten du oso-osorik ebazpen honek, eta haren edukia eta ebazpen hau batera jakinaraziko zaizkie erakunde interesdunari.

BIGARRENA: Behin betiko onartzea “Arabako Hegoaldeko Mendilerroak” Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) eta Hegaztien Babes Bereziko eremuaren (HBBE) “zuzentarauak eta neurriak” (ES2110018) izeneko agiria. Naturagune horrek izendapen hori Eusko Jaurlaritzaren urtarilaren 26ko 10/2016 Dekretuaren bidez (EHAA, 33. zk.a, 2016ko otsailaren 18koa) jaso zuen, kudeaketa agiriari III. eranskin gisa atxikitzeko, aipatutako dekretuaren azken xedapenetatik lehenengoan adierazitako moduan.

HIRUGARRENA. Kudeaketa zuzentarauak eta neurriak agirian jasotako kudeaketa neurriak gauzatzeko zuzkidura ekonomikoak kasuan kasuko aurrekontuekin onartuko den aurrekontu erabilgarria egotearen baldintzapean daude, eta, edozein kasutan ere, agiri horretako kalkulu ekonomikoa 92/43/EE Zuzentarauaren 8. artikuluan aipatutako kofinantzaketa komunitarioari dagokionez beharrezko irizitakorako egiten da.

LAUGARRENA. Erabaki hau jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailari, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

BOSGARRENA. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 15a

Diputatu nagusia


RAMIRO GONZALEZ VICENTE


Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO;

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

AMAIA BARREDO MARTIN





KBE/HBBE ES2110018 III. eranskina (2016ko urria)

1



AURKIBIDEA

1.- SARRERA

2.- KONTSERBAZIO GIDALERROAK ETA NEURRIAK, FUNTSEZKO ELEMENTU EDO KUDEAKETA XEDEEI BEGIRA

- 2.1.- Basoak
- 2.2.- Larreak
- 2.3.- Zohikatzen gunek
- 2.4.- Ingurune erruderalak
- 2.5.- Ibaiak eta ibarren inguruneak
- 2.6.- Harkaitzak eta antzeko inguruneak
- 2.7.- Anfibioak eta narrastiak
- 2.8.- Konektibotasuna

3.- KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK

- 3.1.- Biodibertsitateari buruzko ezagutza eta informazioa
- 3.2.- Komunikazioa, hezkuntza, partaidetza eta herritarren kontzientzia
- 3.3.- Gobernantza

4.- KUDEAKETAKO NEURRI EDO JARDUEREN PROGRAMA ETA KALKULU EKONOMIKOAK

1.- SARRERA

Euskal Herriko natura babesteko Legeak –zeinaren testu bateratua honen bidez onartu baitzen: 1/2012 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa– mekanismo jakin bat zehazten du Europako Erkidegoko araudiaren babesean sortutako espazioen babes figurak lantzeko, zehazki, Natura 2000 Sarean jasotako naturagune babestuei heltzeko.

Hala, Euskal Herriko natura babesteko Legeak, 5. atalaren 22. artikuluan honakoa ezartzen du Natura 2000 Sarearen Kontserbazio Bereziko Eremuen Adierazpenari men eginez: *"Lurralde historikoetako foru organoek kudeaketa jarraibideak onartuko dituzte, kontserbazio helburuak oinarri hartuta, honako hauek jasoko dituztenak: eremuak kontserbazio egoera egokian mantentzeko neurri egokiak, habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea ekiditeko neurri egokiak eta inguru horien izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dieten aldaketak ekiditeko neurriak."*

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren urtarrilaren 26ko 10/2016 Dekretuak (EHAA, 33. z.k., 2016ko otsailaren 18koa), «Arabako hegoaldeko Mendilerroak» (ES2110018) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu zituen. Hori bat dator izendapen bera eta zenbaki bera dituen Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuarekin (HBBE), eta haren barruan Arabako Lurraldeko Toloño-Kantabria, Kodes eta Lokizko mendilerroak sartzen dira, bai eta horien guztien kontserbazio neurriak ere.

Dokumentu honetan ES2110018 Arabako hegoaldeko mendilerroak izeneko KBE / HBBE kudeatzeko gidalerroak eta neurriak jasotzen dira, betiere 10/2016 dekretuan ezarritako kontserbazio helburuetan oinarri hartuz.



2.- KONTSERBAZIO GIDALERROAK ETA NEURRIAK, FUNTSEZKO ELEMENTU EDO KUDEAKETA XEDEEI BEGIRA

2.1.- Basoak

1. Azken helburua	Basoen egitura eta funtzio baldintzak hobetzea eta tokian tokiko banaketa esparruari eta horiei lotutako flora eta fauna populazioei eustea.
1.1. Helburu operatiboa	KBE / HBBe ko basoetan geruzapena, dibertsitate zehatza, egur hilaren presentzia eta bestelako egitura eta funtzio balioak handitzea.
Kudeaketa gidalerroak	1G.- Esparruan baimentzen diren egur eta zuraren aprobetxamenduek kontuan hartuko dituzte horri buruzko azterlanean ezarri beharreko egur hilaren balioen orientazioak. 2G.- Mendi publikoak edo horiei dagozkien berrikuspenak antolatzeke proiektu eta planak egiteko jarraibide hauek kontuan hartu beharko dira: a) KBE / HBBe izendatzeko baliatutako kontserbazio helburuak kontuan hartuko dira. b) Lurraldean garatzen diren erabilerak eta aprobetxamenduak plangintzan jasoko dira, arreta berezia jarritz zuraren ekoizpenean, artzaintzan eta balio naturalen hobekuntzan eta kontserbazioan. c) Ohiko aprobetxamenduak (zura, egurra eta larrea) sustatuko dira kontserbaziorako ezinbesteko erabilera gisa. d) Esku hartzerik jasango ez duten eremuak ezarriko dira. e) Lepatutako zuhaitzak eta interes bereziko zuhaitzak (faunarako balio handikoak, ondare balioa dutenak, bereziak, besteak beste) kontserbatzeko neurriak ezarri eta identifikatuko dira. f) Zur hilaren kantitatea aztertu eta, hala badagokio, kantitate hori handitzeko neurriak ezarriko dira. g) Hondatzeko arriskua duten zuhaitzak identifikatuko dira, eta prebentziorako edo kalteak konpontzeko neurriak zehaztuko dira (itxiturak, abeltzaintza zama arautzea, basoberritzea, eta abar). h) Artzaintzarako egutegia, abeltzaintza zama eta aprobetxagai diren azalerak zehaztuko dira. i) Zuhaitz bilakatzekotan dauden lahardi eta larreen azalerak identifikatuko dira, baita zuhaitz bilakatzeko bidean daudenak kontserbatzeko neurriak ere, hala badagokio.

Kudeaketa gidalerroak	j) Baso inbentarioaren diseinuan jasoko dira basoen kontserbazio egoeraren jarraipena egiteko datuak. 3G.- Basoak kudeatzeko lana sustatuko da, baina betiere naturatik hurbil dauden basogintza irizpideei jarraikiz.
Jarduerak	1.- Zur hilaren balioak orientatzea ahalbidetuko duen azterlan bat egitea; kontuan hartuta, besteak beste, habitat motak, zuhaitzien bilakaeraren egoera, erabilerak eta espezie tipikoen beharrak. 2.- KBE / HBBEko zuhaitz lepatuak eta bazkalekuak kontserbatzeko eta kudeatzeko programa bat diseinatzea, haren barnean ale horien gaineko geoerreferentziak jasoko dituen inbentario bat erantsiz. 3.- <i>Quercus robur</i>-en presentzia aztertzea eta kartografiatzea Toloñoko mendilerroko beste gunen batzuetan, haren hedapena sustatzeko beste espezie batzuen aldean (bereziki pagoa), hala eremu horretan izango duen presentzia hobetuz. 4.- KBE / HBBEko basoen kontserbazio egoera kuantitatiboki aztertzea, Baso Inbentario Nazionalaren lursailen sare iraunkorra erreferentzia gisa hartuta. 5.- KBE / HBBEko basoak antolatzeako proiektuak prestatzea eta aurrera ematea, 2. kudeaketa gidalerroan ezarritakoari jarraituz. 6.- Gidaliburu bat egitea zuhaitzak mozteko markaketarako, besteak beste zuhaitzen egitura eta aniztasuna hobetzeko irizpideak eta basoko fauna eta floraren habitataren egoera hobetzeko irizpideak ezartzeko. Gidaliburuan hainbat argibide jasoko dira koniferoen edota espezie exotikoen landaketetan espezieen aniztasuna areagotzeko. 7.- Lozako udalerriko hego-ekialdean baso erreserba baten kudeaketa plana prestatzea, bertako basoak babesteko, eta plan horretan jasotako jarduketak aurrera ematea.
1.2. Helburu operatiboa	9180* eta 9580* habitaten azalera estaliari eustea edo handitzea, hagineta arreta berezia jarritz haien interesa, urritasuna eta presentzia txikia direla eta.
Jarduerak	8.- Haginaren presentzia eta eraberritzea aldeztuko duten jarduketak diseinatzeko gune potentzialak ebaluatzea, bereziki aleen dentsitateak potentzialtasuna duen eta orbanen berreskurapen erraza ahalbidetuko duen guneetan (perimetroko hesi partzialak, etab.).
1.3. Helburu operatiboa	Basoetako habitatetan kontserbaziorako interesa duten flora espezieen populazioak eta banaketa hobetzea eta haiei eustea.
Jarduerak	9.- <i>Prunus lusitana</i> populazioaren jarraipena egitea eta behar diren neurriak definitzea, haren kontserbazioa bultzatzeko, bilakaera kontuan hartuz.



Jarduerak	10.- Zaintzarako planak zehaztea, ezartzea eta mantentzea, basoetako funtsezko elementuen multzoaren flora espezien tokian tokiko populazio, habitat eta bestelako baldintzatzaileen egoeraren jarraipen sistematikoa egin ahal izateko. 11.- <i>Pyrola minor</i> garatzen den gunetan perimetroko hesi partzialak jartzea prebentzio gisa, hari kalte egin diezaioketen jardueren aurrean. 12.- <i>Narcissus triandrus subsp. triandrus</i> eta <i>Cistus psilosepalus</i> kokatzen direneko habitateko baso egoerak eta azalera hobetzeko protokolo bat ezartzea, sasitzak eta antzekoak mehattuz.
1.4. Helburu operatiboa	Basoetako habitatetan kontserbazio interesa duten fauna espezieen populazioak eta haien banaketa hobetzea eta mantentzea.
Kudeaketa gidalerroak	4G.- Pago egokien aleak garatzeko bultzada ematea, bertan okil beltza habia egin dezan bere banaketa eremuaren barruan: 40-50 cm-ko diametroak, enbor lisoak eta adarrik gabekoak, 10 eta 12 metro arteko gutxieneko altuera izango dutenak. 5G.- Haritz, pago edo makalen ale egokien garapenari laguntza ematea, bertan okil ertainak habia egin dezan eta elika dadin: ale osasuntsuak, 36 cm-ko diametroa edo handik gorakoak izango dituztenak, bai eta azpi erori edo hilak eta zuloekin ere, 18 cm-koak edo handik gorakoak. 6G.- Basoetan soilguneak izango direla bultzatzea, kiropteroen ehiza guneak aldezteko. 7G.- Kiropteroen komunitatearen gaineko laginak egiteko teknikak sustatzea, animalien harrapaketa eta erabilerarik gabekoak; hala eta guztiz ere, aleak markatzeko eta jarraitzeko aplikazioaren egokitasuna balioztatuko da, hala nola irrati bidezko jarraipena.
Jarduerak	13.- <i>Cerambyx cerdo</i> eta <i>Lucanus cervus</i> espezieen populazio mailak zehaztea, bai eta <i>Euphydryas aurinia</i> eta <i>Callimorpha quadripunctaria</i> lepidopteroenak ere, populazio erroldak eginez eta haien banaketa kartografiatua ezarriz KBE / HBBEren barruan. 14.- Intereseko eremuen mapa bat prestatzea KBE / HBBEko koleoptero saproxilikoaren espezieentzat. 15.- Basoetako harraparien eta pizidoen lurralde guztien erroldak egitea, funtsezko elementu ezagun gisa, bai eta KBE / HBBEen izan ditzaketen kokalekuena ere. 16.- KBE / HBBEen kontserbatzeko interesa duten pizidoen komunitatearentzat eremu egokiak zehaztea eta kartografiatzea, gaur egungo banaketa eta habitataren potentzialtasuna kontuan hartuz (elikagaien eskuragarritasuna, habia egiteko tokiak, eta abar).



Jarduerak	17.- Kontserbatzeko interesa duten baso kiropteroen espezieen populazio erroldak garatzea. 18.- KBE / HBBEen baso kiropteroen espezieen natura babeslekuen georreferentziei buruzko erregistro bat sortzea. Erregistro horretan aurrera eraman daitezkeen jarduketan ebaluazio eta balorazioa txertatuko da (elikadura guneak eta putzuak egokiak diren, eta abar).
1.5. Helburu operatiboa	Basoko abeltzaintzako eta basoko aprobetxamenduetarako aukerak harmonizatzea eta hobetzea, biodibertsitatearen kontserbazioari laguntzeko, hala nola produktibitate ekonomikoa, eskualdeko nortasuna eta inguruko biztanleen bizi kalitatea hobetzea.
Kudeaketa gidalerroak	8G.- KBE / HBBEko funtsezko elementuen kontserbazioaren egoera hobetzen laguntzen duten jardura ekonomiko tradizionalen garapena sustatzea.

2.2.- Larreak

2. Azken helburua	Erkidegoaren intereseko larreen azalerak, bereziki lehentasunekoak, kontserbatzea, bai eta haiei lotutako intereseko flora eta fauna espezieen banaketa eremua eta populazioak ere.
2.1. Helburu operatiboa	6210*, 6220* eta 6230* habitaten azalerei kontserbazio egoera onean eustea eta haien ezagutza hobetzea.
Kudeaketa gidalerroak	9G.- Arabako Foru Aldundiak egindako KBE / HBBEko mendi publikoetako larreen aprobetxamendurako jardunbide egokien gidaliburuan ezarritakoa aplikatzea bultzatuko da. 10G.- Itxitura berriak eraikitzean kontuan hartu beharko da basoko fauna bertatik igartzeko material egokiena. Era berean, aplikagarria izango da basoko funtsezko elementuak multzokatzeari buruzko 2. kudeaketa gidalerroa.
Jarduerak	19.- KBE / HBBEen larreak antolatzeke proiektuak prestatzeko eta aurrera eramateko lana sustatzea, 3. kudeaketa gidalerroan ezarritakoari jarraituz. 20.- Jardunbide egokiei buruzko gidaliburua idaztea KBE / HBBEko mendi publikoetako larreen aprobetxamendurako. 21.- Abeltzainen eta toki erakundearen artean banatzea jardunbide egokiei buruzko gidaliburua KBE / HBBEko mendi publikoetako larreen aprobetxamendurako. 22.- 6230* habitati dagokionez, ganaduaren presentzia bultzatuko da abeltzaintzako azpiegiturak instalatuz (ur puntuak, gatza, etab.), degradatuen egon daitezkeen guneetan presioa murriztuz eta erabiltzen ez diren edo aprobetxamendu txikia duten larreen aprobetxamendua aldeztuz, 8. kudeaketa zuzentarauan ezarritakoarekin bat etorrira.



Jarduerak	23.- Tximeleten espezieen presentzia aztertzea eta haien mehatxu maila. Horiek kontserbatzeko programa bat diseinatzea, larreen habitatak kudeatzeko neurri egokiak ezarriz. 24.- Tximeleta berezien espezieentzat eta bereziki <i>Lycaena hippothoe</i>, <i>Parnassius apollo</i>, <i>Satyrus pruni</i>, <i>Polymmatas daphis</i> eta <i>Phengaris arion</i> espezieentzat lehentasunezko guneen kontserbazioa bermatzea.
2.2. Helburu operatiboa	Intereseko flora espezieen banaketa eremuari eutsiko zaiola bermatzea eta haien populazioak eta haien gaineko ezagutza hobetzea.
Jarduerak	25.- Larreen funtsezko elementuak multzokatzeko flora espezieen tokian tokiko populazioen, habitaten eta bestelako baldintzatzaileen egoera sistematikoaren jarraipena egitea ahalbidetuko duten sei urteko zaintza planak definitzea, ezartzea eta mantentzea. 26.- <i>Dactylorhiza sulphurea</i> orkidearen <i>ex-situ</i>-ko ugalketa programa bat diseinatzea eta hedapen potentzialeko eremuak zehaztea eta berriro sartzeko eta inguruneari egokitzeko protokoloak prestatzea.
2.3. Helburu operatiboa	Kontserbazio interesik handiena duten ingurune zabaletako harraparien populazioen banaketa eta bilakaera ezagutzea eta mantentzea.
Jarduerak	27.- Mirotz zurien eta urdinen lurralde guztien eta kokaleku posibleen populazio erroldak egitea KBE / HBBERen barruan. 28.- Mirotz zurien eta urdinen habiak dituzten finketako jabe edo maizterrekin akordioak egitea, uzten garaian horiei eragitea saihestu ahal izateko.

2.3.- Zohikatzen gunek

3. Azken helburua	Zohikatzen higroguneen kontserbazio orokorra mantentzea, bai eta hari lotutako floraren populazioak ere.
3.1. Helburu operatiboa	Zohikatzen higroguneen eta ihitoki mediterraneoen habitaten mosaikoen aldeko kontserbazio egoera iraunaraztea.
Jarduerak	29.- Hezeguneak eta zohikatzen higroguneak kontserbatzeko eta erabiltzeko plana diseinatzea eta abiaraztea, abeltzaintzako erabilerari, asken egokitzapenari, lehengoratzeko ekintzei (lehortutako gunek berreskuratzeko, drainatzeak kentzea, isurketen kontrola...) eta abarri mugak ezartzeko aukera eta komenigarritasuna aztertuz agiri honetan ezarritako lehentasunezko ekintzak jasoz. 30.- 7210 habitataren gune zehatz batzuetan belarra mozteko saloak aurrera eramatea, <i>Cladium mariscus</i>-i, bestelako flora espezie batzuei eta haiekin lotutako inguruneen laguntzen dien erabilera tradizional gisa, helofitoen beste espezie batzuen aldean (hala nola lezka). 31.- 7230 habitataren kalitatea hobetzea (zohikatz txiki alkalinoak), sasitza kontrolatuz, bereziki Herrera mendateko zohikatzen gune txikian, bertan <i>Senecio carpetanus</i> espeziea azaltzen baita.
3.2. Helburu operatiboa	Zohikatzen gunetako flora espezieen banaketa eremuari eutsiko zaiola bermatzea eta haien populazioak eta haien gainerako ezagutza hobetzea.
Jarduerak	32.- Zohikatzen guneen funtsezko elementuak multzokatzeko flora espezieen tokian tokiko populazioen, habitaten eta bestelako baldintzatzaileen egoera sistematikoaren jarraipena egitea ahalbidetuko duten sei urteko zaintza planak definitzea, ezartzea eta mantentzea. 33.- Perimetroan hesiak jartzea eta <i>Senecio carpetanus</i>-en habitata egokitzea Herrerako mendatean. 34.- <i>Berula erecta</i> eta <i>Senecio carpetanus</i> espezieen germoplasmako ex-situ-ko ugalketa eta bilketa programa bat diseinatzea (haziak eta progapuluak) eta hedapen potentzialeko eremuak zehaztea eta berriro sartzeko eta inguruneari egokitzeko protokoloak prestatzea.



2.4.- Ingurune erruderalak

4. Azken helburua	<i>Teucrium botrys</i> eta <i>Peucedanum officinale</i>-ren banaketa eremuari eta populazioei eustea, ahal den neurrian, gaur egun duten banaketa hobetuz.
4.1. Helburu operatiboa	Habitaten ezaugarriei eustea, bai eta populazio mailiei eta ingurune erruderalari ere.
Jarduerak	35.- Ingurune erruderalen funtsezko elementuak multzokatzeko flora espezieen tokian tokiko populazioen, habitaten eta bestelako baldintzatzaileen egoera sistematikoaren jarraipena egitea ahalbidetuko duten sei urteko zaintza planak definitzea, ezartzea eta mantentzea. 36.- <i>Peucedanum officinale</i> eta <i>Teucrium botrys</i> azaltzen diren tokiak zehatz-mehatz ezagutzea eta kartografiatzea, kokaleku horien luberriketa, alterazio edo erabilera aldaketa prebenitzeko.

2.5.- Ibaiak eta ibarren inguruneak

5. Azken helburua	Ibarren ingurunetako habitaten eta haien lotutako fauna espezieen hobekuntza eta kontserbazioa bultzatzea eta iturburu petrifikatzaileen ezaugarriei eta ohiko habitataren dinamikari eustea (erregimen hidrologikoa eta uraren ezaugarri fisiko-kimikoak).
5.1. Helburu operatiboa	Ibarretako basoen egitura eta osaera hobetzea.
Kudeaketa gidalerroak	11G.- Haltzadien kontserbazio egoeraren hobekuntza sustatzea, Arabako hegoaldeko mendilerroetako KBE / HBBEren barruan haien egitura eta funtzioak handituz. 12G.- Haltzaren gainbehera izenekoaren agerpen edo presentzia zaintzeko eta prebenitzeko protokolo egokien ezarpena bultzatzea; izan ere, hori <i>Phytophthora alni</i> onddoak eragiten du eta horrek nabarmenki eragin diezaieke 91D0* eta 91E0*-ko haltzadien.
Jarduerak	37.- Inpaktuek (kontrolik gabeko isurketak, higadurak eta abar) ukitutako eremuak berreskuratzea, gune horien ingurumenaren aldetiko eraberritzeak aintzat hartuz.
5.2. Helburu operatiboa	7220* habitata agertzen den esparruen azalerari eta kalitateari eustea; zehatzago ur jauzia elikatzen duen errekaen uraren kalitatea ezagutzea eta kontrolatzea, bai eta haren ukipenak eta alterazio faktoreak ere.
Kudeaketa gidalerroak	13G.- EAEko Azaleko Uren Urteko Jarraipen Sarearen markoan, laginketa puntu baten ezarpena sustatzea 7220* habitataren ur beheran.
Jarduerak	38.- 7220* habitataren azalera potentziala zehaztea eta kartografiatzea, haren berreskurapenik handiena sustatu nahian.

Jarduerak	39.- 7220* habitataren tokiko erregimen hidrologikoa definitzea eta mantentzea, hari eusteko gutxieneko emari ekologikoa ezarri. 40.- Tobaren eraketaren gaur egungo puntu dinamiko eta ebolutiboa zehaztea, dinamika hidrologikoaren, emarien eta uraren kalitatearen dinamikaren ezagutza sakonduz, lur azpiko fluxuetan arreta berezia jarri, etorkizunean izango duten bilakaera aurreikusi ahal izateko.
5.3. Helburu operatiboa	Ibaiei eta ibarretako inguruneen lotutako habitata eta espezieak eta, bereziki, 7220* habitata kontserbatzeko interesaren eta garrantziaren berri ematea, habitat horretan arroaren eraketa biogenetikoaren prozesu ezagunetarikoa bat azaltzen baita.
Kudeaketa gidalerroak	14G.- 7220* habitata kokatzen deneko gunea kontuan hartzea Arabako Lurralde Historikoan gara daitezkeen ingurumen hezkuntzako eta zabalkundeko jardueretan (bisita gidatuak, eta abar): 15G.- Hezeguneen kontserbazioa prebenitzea eta haien lotutako habitata eta espezieena.
Jarduerak	41.- Habitat hauen eta haien lotutako espezieen originaltasuna, arroa eratzeko eta suntsitzeko prozesuak eta dinamika eta haien azalera eta alderdi dinamikoak (eraketa/suntsipena) eta erabilera alderdiak (toba/zubien aprobetxamendua) agerian jartzen dituzten seinaleak eta zabalkunde materialak prestatzea, dokumentu honetan sistemaren hauskortasuna, mehatxuak eta erabilera murrizketak azpimarratuz. 42.- Eremuei lotutako fauna ornoduna eta ornogabearen espezieen, haien kontserbazio egoeraren eta mehatxu mailaren berri ematea eta hezeguneak kontserbatzeko garrantzia jakinaraztea.
5.4. Helburu operatiboa	Ibai karramarro autoktonoaren espeziearen gaur egungo banaketa ezagutzea eta haren banaketa eremua handitzea.
Jarduerak	43.-KBE / HBBe komunitate astazikoloaren banaketari buruzko azterketak egitea, ibai karramarroaren, seinale karramarroaren eta karramarro gorrien populazioen bilakaera zehazteko KBE / HBBe ibai eremuetan zehar kokatutako laginketa estazioen sarean eta habitataren edota espezieen gaineko jarduketak neurriak ezartzea. 44.- Ibai karramarroa KBE / HBBe erreken eta putzuen sarean zabaltzeko plana diseinatzea eta aurrera eramatea, kokalekuen arteko aldaketak eginez. Horretarako, banaketa azterlanak hartuko dira kontuan eta habitataren potentzialtasuna, betiere karramarro aloktonoen banaketa kontuan hartuz, bai eta ibaien goiburuetan ur hartuerik eza ere. Funtsezko elementu gisa definitutako espezieen anfibioen populazioa kontserbatzeko interesguneak ere alde batera utzi beharko dira.



5.5. Helburu operatiboa	Karramarro aloktonoaren populazio berrien kokapena ekiditea eta karramarro autoktonoen guneetara zabaltzeko joerari aurre egitea.
Kudeaketa gidalerroak	16G.- Karramarro autoktonoaren presentzia baieztaturik dagoen guneetan zaintza zereginak handituko direla sustatzea.
Jarduerak	45.- Ibai tarteetako uretan behera urtean behin laginketak egitea ibai karramarroaren presentzia baieztaturik dagoenean, bai eta espezie horrek kolonizatu ez dituen putzueta ere, karramarro gorrien eta seinale karramarroen kolonizazio maila zehazteko edota espezie horiek sistema horien inbasioaren atzemate goiztiarra atzemateko. 46.- KBE / HBBeko putzu txikiagoetan fauna aloktonoen populazioak kontrolatzeko programa diseinatzea eta garatzea, karramarro gorrien eta seinale karramarroen presentzia baieztaturik dagoenean.
5.6. Helburu operatiboa	Bisoi europarraren eta igarabaren espezieen banaketa eta populazio bilakaera ezagutzea KBE / HBBEn eta haien habitata kontserbatzea.
Jarduerak	47.- KBE / HBBEn bisoi europarraren eta igarabaren banaketa eta populazio egoeraren berri izateko populazio erroldak garatzea. 48.- Bisoi amerikarraren populazioak kontrolatzeko programari jarraitzea, Arabako Foru Aldundiak onetsitako kudeaketa planean ezarritakoari jarraituz. Egitasmo horretan espezie exotiko inbaditzailea bizirik harrapatzeko urteko tranpak azaltzen dira.

2.6.- Harkaitzak eta antzeko inguruneak

6. Azken helburua	Espezie talde honen banaketa eremuari eta populazioei eustea, haien jarraipena ezarri
6.1. Helburu operatiboa	Harkaitzen eta antzeko inguruneen habitatei lotutako flora espezieentzat ezaguna den banaketa eremua mantentzea, bai eta bertako populazioak ere.
Jarduerak	49.- Harkaitzen eta antzeko inguruneen funtsezko elementuen multzoko flora espezieen populazioen, habitaten eta bestelako baldintzatzaileen egoera sistematikoki jarraitzea ahalbidetzen duten zaintza planak zehaztea, ezartzea eta iraunaraztea. 50.- Harkaitzetatik hurbileko guneetan sasitzan eta pagadietan soilguneak zabaltzea, talde honetako espezie batzuen presentziarik gabeko kokalekuak jarduketa eremu zehatz gisa hautatuz (<i>Centaurea lagascana</i>, etab.).

6.2. Helburu operatiboa	Harkaitzetako harrapariak aztertzea bideratutako gaur egungo kudeaketari jarraipena ematea eta haien habien eta bizi eremuen habitatak kontserbatzea.
Kudeaketa gidalerroak	17G.- Aleak markatzeko eta haien jarraipena egiteko tekniken aplikazioaren egokitasuna balioztatzea, hala nola eraztunak, irrati bidezko jarraipena, satelite bidezkoa... 18G.- KBE / HBBEn Bonelli arranoaren populazioaren errefortzuaren egokitasuna balioztatzea gatibualdian hazitako aleak berriro ere sartuz. 19G.- Harkaitzeko espezieen jarraipenak ugalketaren porrot iraunkorra atzematen badu elikadura falta dela eta, bizi eremuaren natura eskuragarritasuna handitzera edo elikagai osagarriak eskaintzera bideratutako jarduketaren aplikazioaren komenigarritasuna aztertzea. 20G.- Lurraldeen arteko koordinazioa bultzatzea harkaitzeko harraparien maneian eta kudeaketan.
Jarduerak	51.- Funtsezko elementu gisa definitutako harrapari harkaitzarren lurralde eta kolonia guztien populazio erroldak egitea, bai ezagunenak bai kokalekuak izan daitezkeenak bai utzi dituzten lurraldeenak. 52.- Belatxinga mokogorriaren populazio errolda zehatza garatzea, populazio mailak zehazteko asmoz. 53.- Bonelli arranoaren populazioaren urteko jarraipena egiten segitzea, bai eta KBE / HBBEn kokatu ohi diren bikote ugaltzaileena ere. Jarraipen horretan habiak egiteko erabili izan diren gunek historikoak edo erabili litezkeenak hartuko dira kontuan. 54.- Hiru urterik behin prospekzioak egitea ugatzarentzat interesekoak diren gunek nagusietan urriaren 1etik maiatzaren 15era bitartean (sakabanatzeko eta ugalketa lurraldeetan kokatzeko epealdia), betiere aleen kopurua zehazteko, kokatzen diren gunek aztertzeke, etab. 55.- KBE / HBBEko sare elektrikoek hegaztiak eta, oro har, faunari dakarkieten arriskua balioztatzea eta erakunde titularrekin elkarlanean arrisku ildoen jarduketak buruzko plan bat prestatzea, talkaren kontrako gailuak eta elektrokuzioaren kontrako neurriak jarri ahal izateko. 56.- KBE / HBBEn Bonelli arranoarentzat dagoen potentzialtasuna aztertuko da, jarduketa gunek zehazteko, habitata hobetzeko eta haren populazioaren sendoketari begira gunek potentzialak ezartzeko. 57.- KBE / HBBEren barruan ugatzarentzat interes berezizat hartutako gunetan ingurunearen potentzialtasuna aztertuko da eta haren hobekuntza eta kontserbaziorako jarduketak proposatuko dira. 58.- Bonelli arranoarentzat egokiak diren gunetan usategiak eraikitzea eta mantentzea.



Jarduerak	59.- Harri multzoak eraikitzea eta mendiko untxiaren populazioa sendotzea, Bonelli arranoarentzat egokituz jotzen diren guneeetan. 60.- Sartzeko debekua, aldi baterakoa edo iraunkorra, seinaleztatu Bonelli arranoaren eta sai zuriaren habien inguruko guneeetan. 61.- Baimendutako eskalada gunek mugatzeko seinale eta informazio panelak jartzea. 62.- Horretarako baimendutako guneeetatik kanpo kokatutako eskalada ekipamenduak kentzea.
6.3. Helburu operatiboa	KBE / HBBe kontserbatzeko interes gehien duten haitzuloetako kiroptero eta kiroptero antropofiloen banaketa eta populazio bilakaera ezagutzea eta haien habitata kontserbatzea.
Kudeaketa gidalerroak	21G.- Haitzuloetako kiropteroen eta kiroptero antropofiloen komunitatearen gaineko laginketa teknikak sustatzea, animalia hauek harrapatu eta manelatu gabe; hala ere, aleak markatzeko eta jarraitzeko zenbait teknikaren aplikazioaren egokitasuna balioztatuko da, hala nola irrati bidezko jarraipena... 22G.- Udal arautegiak kiropteroak babesteko baldintzak jasotzea.
Jarduerak	63.- Haitzuloetako kiroptero eta kiroptero antropofiloen espezieen populazio erroldak egingo dira harkaitzen eta antzeko inguruneen funtsezko elementuen multzoan. 64.- KBE / HBBe haitzuloetako kiropteroen eta kiroptero antropofiloen espezieen babesleku natural eta artifizialen erregistro bat sortuko da georreferentziak erabiliz. Erregistro horretan haietan egin daitezkeen jarduketan ebaluazio eta balorazio bat jasoko da (haitzuloetako sarreraren sare horizontalak, elikadura guneen egokitzapena, etab.).

2.7.- Anfibioak eta narrastiak

7. Azken helburua	Gaur egungo populazioak kontserbatzea eta haien hedapena bultzatzea, bai eta kontserbazio interesik handiena duten anfibioren eta narrastien populazioen jarraipena ezartzea ere.
7.1. Helburu operatiboa	Kontserbazio interesik handiena duten anfibioren eta narrastien populazioen banaketa eta bilakaera ezagutzea.
Jarduerak	65.- Anfibioren eta narrastien funtsezko elementuaren espezieen populazio mailak eta banaketa eremua zehaztea. 66.- KBE / HBBe narrastien funtsezko elementuen espezieentzat interes gehien duten eremuen mapa bat prestatzea.

7.2. Helburu operatiboa	Egun KBE / HBBEko eremuan ezagutzen diren kontserbazio interesik handieneko anfibioen eta narrastien populazioak babestea eta haien hedapena bultzatzea eremuaren barruko bestelako gune batzuetara.
Kudeaketa gidalerroak	23G.- Hezeguneen kontserbazioa prebenitzea, haiei lotutako anfibioen espezieak kontserbatzeko.
Jarduerak	67.- Ganaduak eta bestelako jarduera batzuek kontserbazio intereseko fauna eta floraren populazioen gainean izan dezaketen eragina aztertzea, perimetroko hesiak instalatuz modu esperimentalean, besteak beste honako gune hauetan: Toloñoko goiko larrean, Herrera mendateko ihitoki-larrean eta Toloñ-Kantabria mendilerroko San Bartolomeko putzuan, bai eta Lokizko Mendioeroko Santa Luzia, Iturburu Gain eta Galtzadako putzuetan ere. 68.- Santa Luzia, Iturburu Gain eta Galtzadako putzuen inguruan askak eraikitzea, aurreko neurriak abeltzaintza estentsiboan izan ditzakeen eraginak ahal den neurrian apaltzeko asmoz. 69.- Arabako hegoaldeko mendilerroetako ureztatze putzuak egokitzea eta birgaitzea, irteera arrapalak instalatuz, hesiak aldatuz edo ibarrak landaretzarekin birlandatuz. Putzuen artean, honakoak aipatu behar dira: La Llana (Ocio), Lagrán II, Villaverde, San Bartolome (Guardia), bai eta Aldosilla, La Dormida, La Tortura eta Barzones inguruetako iturri zaharrak ere Kodesko mendilerroan. 70.- Anfibioak ugaltzeko habitat potentzial gisa, putzuak egokituko dira perimetroan hesiak jarritz, KBE / HBBE eraikitako aska berrien hustubideetan. 71.- KBE / HBBEko habitat potentzialaren egokitasuna aztertzea <i>Pelobates cultripes</i> apo ezpoidun arruntarentzat eta <i>Rana dalmatina</i> baso igel jauzkariarentzat. 72.- KBE / HBBEko putzu sarean eta erreketan <i>Rana dalmatina</i> igela hedatzeko programa bat diseinatzea, espeziearen lekualdaketak eginez. Horretarako, espeziearen banaketa hartuko da kontuan, bai eta habitaten potentzialtasuna (ibai karramarroen eta igel arruntaren banaketaren arabera) eta bestelako ukipenik ez egotea ere. 73.- KBE / HBBEren barruan kontserbazio interesa duten narrastien populazioen artean harrapaketen gatiko hilezkortasun mailak aztertzea.

**2.8.- Konektibotasuna**

8. Azken helburua	KBE / HBBEren barruan eta Natura 2000 Sarearen beste gune batzuetan konektibotasun ekologikoa zaintzea eta hobetzea.
8.1. Helburu operatiboa	KBE / HBBEren konektibotasun ekologikoa hobetzea.
Jarduerak	74.- KBE / HBBEren barruan konektibotasun ekologikoa hobetzeko proiektu bat prestatzea eta beharrezko neurriak abiaraztea, drainatzeak, heskaiak, landu gabeko lursailak edota bestelako egiturak baliatuz, ibal sareen eta hezeguneen arteko konektibotasuna bultzatzeko, bai eta hurbileko eremuetako habitat interesgarrien eta ingurumen balioa duten eremu mugakideen artean ere.

3.- KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK**3.1.- Biodibertsitateari buruzko ezagutza eta informazioa**

9. Azken helburua	KBE / HBBeko biodibertsitatearen oinarritzko kontserbazio egoera eta galtzea edo hondatzea eragin dezaketen arrazoiak behar besteko zehaztasunez ezagutzea, epe luzearako iraunkortasuna bermatzen duten beharrezko neurriak diseinatu ahal izateko.
9.1. Helburu operatiboa	Eguneratutako kartografia bat prestatzea, kontserbaziorako habitat interesgarri guztiekin eta eremuko biologia dibertsitatearako eta osotasun ekologikorako garrantzitsuak diren kultura eta natura enklabe edo elementu guztiekin.
Jarduerak	75.- Aldian behin EUNIS landarediaren mapa eta habitaten mapa eguneratzeko protokoloa zehaztea eta, horretarako, bereziki azpimarratzea bilakaera naturalak edo gizakiaren esku hartzeak eragindako aldaketak, bai eta azalera murriztuko eta aurreko kartografiatan antzeman ez diren habitatei buruzko ezagutzen inguruko hobekuntzak sartzeara ere. 76.- Basoko fauna eta florarentzat balioa duten edo berezitasun geologikoa duten elementu natural eta geomorfologikoen inbentario ireki georreferentziatu bat sortzea eta modu jarraituan eguneratzea. Inbentarioak sartutako elementuak zehaztuko ditu, betiere gutxienez horiek sartzeko arrazoiak adieraziz eta kokapenerako beharrezko koordinatuak ezarriz. Inbentarioa osatuko duten elementuak honakoak izan daitezke: zuhaitz hilak edo zulodunak, ubide txikiak, aldi batez urez betetako lurrak, putzuak, heskaiak, landa bideak, bidezidorrak, azaleratze geologikoak, etab.
9.2. Helburu operatiboa	Funtsezko elementu gisa definitutako prozesu, habitat eta baso espezieen kontserbazio egoera ezagutzea.
Jarduerak	77.- Habitaten eta babes bereziko araubidean dauden basa espezieen kontserbazio egoerari buruzko fitxa egitea, informazioa azkar erabili ahal izateko, Habitaten Zuzendarauaren 17. artikuluan ezarritako informazio estandarizatuaren berri emateko beharrak betetze aldera. 78.- Eremuan aurrera eramandako jardura zientifiko edo ikerkuntzazkoetan lortutako emaitzen zabalkundea sustatzea, jendaurrean jarritz eta, horretarako, argitalpenak, internetak, hitzaldiak eta abar baliatuz. Argitaratzen diren dokumentu guztiek zabalkunderako laburpen bat jasoko dute. 79.- Zerbitzuetako pertsonalari zuzendu beharreko prestakuntza ikastaroak garatzea, betiere agiri honetan kudeaketarako proposatutako jarduketak, erregulazioak eta gidalerroak jakinarazteko eta funtsezko elementuak identifikatzeko.



9.3. Helburu operatiboa	KBE / HBBeKo biodibertsitatea epe luzeari begira mantentzea bermatuko duten beharrezko jarduketak diseinatzea.
Kudeaketa gidalerroak	23G.- Eremuan egin beharreko kudeaketa planifikazioan aintzat hartuko dira basoetako suteak prebenitzeko eta itzaltzeko jarduketak.
Jarduerak	80.- KBE / HBBeEn basoko suteak prebenitzeko planak prestatzea. 81.- KBE / HBBeEn basoko suteen kontra borrokatzeko prebentzio neurriak diseinatzea eta abiaraztea.
9.4. Helburu operatiboa	Kalkulu bat edukitzea KBE / HBBeEren dibertsitate biologikoak duen balio ekonomikoarena, bai eta espezieek eta ekosistemek eskaintzen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuena ere.
Jarduerak	82.- Azterlan bat egitea KBE / HBBeEren kontserbazio eta kudeaketa tresnak aplikatzeagatik errenta murrizten duten jarduerari eta errenta galera hori berdintzeko zenbateko eta bitartekoel buruzkoa. 83.- KBE / HBBeKo biologia aniztasunaren eta haien ekosistemek eskaintzen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuen balio ekonomikoaz aztertzea, eta KBE / HBBe eremuan biologia aniztasunerako egin diren jarduketan zenbatespen bat egitea.
9.5. Helburu operatiboa	KBE / HBBeKo basa faunaren heriotza ez naturala adierazteko mapa bat egitea, bertan puntu beltzak adierazita.
Jarduerak	84.- KBE / HBBeEtik datozen eta Martiodako Faunaren Suspertegian sartzen diren basa espezie guztien erregistro informatikoa egitea georreferentziak adierazita. Lesio motaren, haren arrazoiaren eta bilketa puntuko koordinatu geografikoaren gaineko datuak jasoko dira. Pozoitze kasuetan, analisi toxikologikoak egingo dira, zigor eta administrazio jardura hasteko emaitzen fidagarritasuna bermatzea ahalbidetuko duten metodoen bidez. 85.- Gune beltzen mapa bat egitea; bertan, honako hauei buruzko informazio georreferentziatua jasoko da: eremuko baso faunaren espezieen artean izandako heriotzak, betiere linea elektrikoaren edo beste azpiegitura batzuen aurka izandako talkengatik eta elektrokutatuta, tiroz, pozoiz, harrapatuta edota heriotza ez naturalen ohiko beste edozein arrazoiagatik. Mapa hori aldizka-aldizka eguneratuko da eta neurri zuzentzaileak proposatuko dira, plan honetan eta hurrengoetan sartzeko eta planen, programen eta proiektuen ingurumen ebaluazioetan aintzat hartzeko. 86.- Eremuak erabiltzen dituzten abeltzain, ehiztari, mendiko elkarte eta beste kolektibo batzuei zuzendutako informazio kanpaina bat egitea puntu beltzen mapa hori buruz eta haien lankidetzaz sustatzea hori prestatzeko lanean.

Jarduerak	87.- Urtero KBE / HBBEko basoko faunako heriotza ez naturalen, hartutako neurri zuzentzaileen eta horien emaitzen inguruko txostena egitea, eta, horrela, interesa duten pertsonak eta erakundeek horretara jo ahal izatea bermatzea.
------------------	---

3.2.- Komunikazioa, hezkuntza, partaidetza eta herritarren kontzientzia

10. Azken helburua	Gizarte partaidetza sustatzea KBE / HBBERi erabakiak hartzerakoan eragiten dioten prozesuetan eta herritarrek haren kontserbazioan inplikatzeko.
10.1. Helburu operatiboa	Aldian behin herritarrei KBE / HBBEko biodibertsitatearen kontserbazio egoerari buruzko informazio ulergarria zabaltzea, bai eta ingurumeneko laguntzei, egoera ahulak dakartzaten kausei, horren inguruko politika publikoei eta emaitzei buruzko informazioa ere.
Kudeaketa gidalerroak	24G.- Funtsezko elementuak kontserbatzera bideratutako jardueretarako laguntza zehatzen lerroen ezagutza eta zabalkundea sustatzea. 25G.- Aktiboki sustatzea indarrean dagoen Landa Garapenaren aldeko Planean jasotako laguntzen ezarpenaren ezagutza eta zabalkundea.
Jarduerak	88.- Arabako Foru Aldundiaren webgunean KBE / HBBERi buruzko atal zehatz bat sortzea, eremuan garatzen diren lanen eta azterlanen berri emateko. 89.- Habitata, flora, fauna eta prozesu ekologikoak kontserbatzeko jarduketak, gidalerro eta erregulazioei buruzko komunikazio eta informazio programa bat sortzea eta biodibertsitatearen kontserbazioari lagun diezaioketen jarduera tradizionalen gainekoa ere, ukituak edo jarduketak horietan aktiboki inplikatuak izan daitezkeen gizarte sektoreei zuzenduta. 90.- KBE / HBBEko balioei buruzko informazio panelak instalatzea, bai eta kontserbaziorako garatutako jarduketak buruzkoa ere, eremuen barruan bisitarik gehien hartzen dituzten guneetan (aisialdi guneak eta abar). 91.- Hezkuntza kanpainak eta ingurumenaren aldeko sentsibilizazio zehatzei buruzko kanpainak garatzea, honakoak ezagutarazteko: habitata eta funtsezko elementuetako espezieak, horien kontserbazioari lotutako kudeaketa iraunkorra, uretan espezie aloktonoak sartzeko eragin negatiboak, espezie aloktonoek eragin ditzaketen inbasio prozesuak eta zuhaitz hilak eta seneszentek kontserbatzeko garrantzia, kontserbazio interesa duen faunarentzat. Era berean, eta ahal izanez gero, administrazioen inbertsioak eta ingurumen gastua zabaltzea.



Jarduerak	92.- Arabako hegoaldeko mendilerroetako KBE / HBBEko kudeaketa eta kontserbazioan inplikaturako ingurumen administrazio eta administrazio sektorialen arteko topaketa bilgune bat sortzea eta garatzea: administrazio batzarrak, udalak, Arabako Foru Aldundia, Eusko Jurlaritzak eta abar bilduko dituen bilgunea, alegia. 93.- KBE / HBBERi eta haren helburuei buruz herritarrek duten ezagutza, jarrera, konpromisoa eta inplikazioa eta jokabidea aztertzeak aldizkako ebaluazioak egitea; horrela, komunikazio, heziketa eta kontzientizazio ekintzak berriro orientatu ahal izango dira.
------------------	---

3.3.- Gobernantza

11. Azken helburua	Organo publiko eskudun guztien erakunde koordinazioa hobetzea, ingurumenari buruzko araudia eta araudi sektoriala egokitzea, KBE / HBBERen ondoko eremu mugakideak babesteko elementu berriak ezartzea eta babes elementurik ez duten espezie sailkatuei halako osagialak ematea.
11.1. Helburu operatiboa	Eusko Jurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak eremuan aurrera eramaten dituen jarduketak koordinatzeko batzorde tekniko iraunkorra sortzea.
Jarduerak	94.- Eusko Jurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren eta eremua osatzen duten toki administrazioen arteko lantalde bat osatzea, kontserbazio eta kudeaketa tresnen erregulazio, gidalerro eta jarduketaren aplikazioan laguntzeko. Jarraipen organo hau, gehienez, KBE izendatu eta urtebetara eratu beharko da. 95.- Habitaten, flora eta fauna espezieen eta eremuko prozesu ekologikoen kudeaketan eta kontserbazioan eragina izan dezaketen jarduketa erregistro bat sortzea, horiek finantzatzeko modua jasoz, habitatari buruzko zuzentarauaren 17. artikuluan alpatutako seiurteko txostenari begira.
11.2. Helburu operatiboa	Ingurumen araudi eta araudi sektorial guztia egokitzea, kontserbazio jarduketa hauen aplikazioa errazteko.
Kudeaketa gidalerroak	26G.- Natura 2000 espazioen eremu natural babestuen izaera kontuan hartuta, administrazioek onesten dituzten lurralde antolamendurako tresnek eta hirigintzako plangintzakoek saihestuko dute artifizializazioa eta sailkapena lurzoru urbanizazinetik lurzoru urbanizagarria edo hiritarrera aldatzea, arlo horietan dauden habitat naturalak eta espezieak kontserbatzen direla bermatzeko.
Jarduerak	96.- KBE/HBBEa osorik edo zati batean aplikazio eremu duten kudeaketa agiriak berriro aztertuko dira, naturagune honen kudeaketa agiriaren ezarritakoari egokitu daitezkeen.

11.3. Helburu operatiboa	Espezioen babes maila handitzea, habitaten eta populazioen arteko konexioa sustatuz.
Kudeaketa gidalerroak	27G.- Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan "arrisku larrian", "desagertzeko arriskuan" eta "egoera kalteberan" dagoen flora berreskuratzeko plan baten onarpenari bultzada ematea.
Kudeaketa gidalerroak	28G.- Harkaitzetako espezieei begira legezko kudeaketa tresnen ezarpena sustatzea, baldin eta EAE mailan halako tresnarik ez badute. Ugatzen, sai zurien eta sai arrearen gisako hegazti nekrofagoei begira onartutako kudeaketa plan bat dago, baina ez kontserbatzeko interesgarritzat jotzen diren gainerako hegazti harkaitzarrei begira. Ez dago horiei zuzendutako proposamenik. Egokia bide da espezie horien gainean dauden ezagutzak kontuan hartuz hori berrikustea eta, hala badagokio, kudeaketa planen onarpena bultzatzea.
	29G.- "EAEko saguzarren ekintza planaren proposamena" eguneratzea bultzatzea, taxoi horiek kontserbatzeko eta kudeatzeko funtsezko lanabes gisa onartua izan dadin, eta Mehatxatutako Espezioen Euskal Katalogoan sartutako espezieen kudeaketa planen onarpena sustatzea.



4.- KUDEAKETAKO NEURRI EDO JARDUEREN PROGRAMA ETA KALKULU EKONOMIKOAK.

Apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzeko Legearen testu bateratua onartzen duenak, 22. artikuluan ezartzen duena betetzeko, jarraian programa honetako jarduera eta neurriei dagozkien kalkulu ekonomikoak zehaztuko dira.

22.3. artikulua:

Txostenak, bere tramitazioaren hasierako faseetatik hasita, memoria ekonomiko bat izango du, zeinak espresuki jasoko dituen 92/43/EE Zuzentarauaren 8. artikuluan jasotako baterako finantzaketa komunitarioaren arabera beharrezkotzat hartzen diren aurreikuspenak.

Jarraian, aipatu den 8. artikuluko hori transkribatuko da, zehazki 1. eta 2. puntuak:

- 1. Kontserbazio bereziko eremu izendatu ahal diren eta barnean lehentasunezko habitat naturalak edota lehentasunezko espezieak dituzten lekuei buruz proposamenak egiten dituzten aldi berean, Estatu kideek Batzordeari haien kalkuluak bidaliko dizkiote, bidezkoa denean, Europako Batasunaren finantzaketari buruz egokitutako jotzen dutena dela-eta, 6. artikuluko 1. idatz zatian hitzartuta dagoenaren arabera haien betebeharrak bete ahal izateko.*
- 2. Estatu kide bakoitzarekin ados jarrita, finantzaketa eskatzen deneko leku garrantzitsuetarako, Batzordeak zehaztuko ditu ezinbestekoak diren neurriak, lehentasunezko habitat naturalen kontserbazio egoera mantendu edo leheneratzeko, eta neurri horien ondoriozko kostu osoak ere zehaztuko ditu.*

* Taula honetan agertzen diren aurrekontuak gubxi gorabeherakoak dira.

2.1.- Basoak

Kod.	Jarduera	Kostua (€)
1	Zur hilaren balioak orientatzea ahalbidetuko duen azterlan bat egitea; kontuan hartuta, besteak beste, habitat motak, zuhaitzien bilakaeraren egoera, erabilera eta espezie tipikoen beharrak.	12.000
2	KBE / HBBEko zuhaitz lepatuak eta bazkalekuak kontserbatzeko eta kudeatzeko programa bat diseinatzea, haren barnean ale horien gaineko georreferentziak jasoko dituen inbentario bat erantsiz.	20.000
3	<i>Quercus robur</i> -en presentzia aztertzea eta kartografiatzea Tolofoko mendilerroko beste gune batzuetan, haren hedapena sustatzeko beste espezie batzuen aldean (berezikiki pagoa), hala eremu horretan izango duen presentzia hobetuz.	6.000
4	KBE / HBBEko basoen kontserbazio egoera kuantitatiboki aztertzea, Baso Inbentario Nazionalaren lursailen sare iraunkorra erreferentzia gisa hartuta.	25.000
5	Mendiak antolatzeako proiektuak prestatu eta aurrera eramango direla sustatzea.	60.000
6	Gidaliburu bat egitea zuhaitzak mozteko markaketarako, besteak beste zuhaitzen egitura eta aniztasuna hobetzeko irizpideak eta basoko fauna eta floraren habitataren egoera hobetzeko irizpideak ezartzeko.	15.000
7	Lozako udalerriko hego-ekialdean baso erreserba baten kudeaketa plana prestatzea eta plan horretan jasotako jarduketak aurrera ematea.	30.000
8	Haginaren presentzia eta eraberritzea aldeztuko duten jarduketak diseinatzeako gune potentzialak ebaluatzea, bereziki aleen dentsitateak potentzialtasuna duen eta orbanen berreskurapen erraza ahalbidetuko duen guneetan.	5.000
9	<i>Prunus lusitana</i> populazioaren jarraipena egitea eta behar diren neurriak definitzea, haren kontserbazioa bultzatzeko, bilakaera kontuan hartuz.	3.000
10	Zaintzarako planak zehaztea, ezartzea eta mantentzea, basoetako funtsezko elementuen multzoaren flora espezieen tokian tokiko populazio, habitat eta bestelako baldintzatzaileen egoeraren jarraipen sistematikoa egin ahal izateko.	25.000
11	<i>Pyrola minor</i> garatzen den guneetan perimetroko hesi partzialak jartzea prebentzio gisa, hari kalte egin diezaioketen jardueren aurrean.	4.000
12	<i>Narcissus triandrus subsp. triandrus</i> eta <i>Cistus psilosepalus</i> kokatzen direneko habitateko baso egoerak eta azalera hobetzeko protokolo bat ezartzea, sasitzak eta antzekoak mehatzuz.	5.000
13	<i>Cerambyx cerdo</i> eta <i>Lucanus cervus</i> espezieen populazio mailak zehaztea, bai eta <i>Euphydryas aurinia</i> eta <i>Callimorpha quadripunctaria</i> lepidopteroenak ere, populazio erroldak eginez eta haien banaketa kartografiatua ezartze KBE / HBBEren barruan.	25.000

KBE/HBBE ES2110018 III. eranskina Aldez aurretik onartzeko dokumentua (2016ko maiatza)

Kod.	Jarduera	Kostua (€)
14	Intereseko eremuen mapa bat prestatzea KBE / HBBEko koleoptero saproxilikoaren espezieentzat.	4.000
15	Basoetako harraparien eta pizidoen lurralde guztien erroldak egitea, funtsezko elementu ezagun gisa, bai eta KBE / HBBE izan ditzaketen kokalekuena ere.	30.000
16	KBE / HBBE kontserbatzeko interesa duten pizidoen komunitatearentzat eremu egokiak zehaztea eta kartografiatzea, gaur egungo banaketa eta habitataren potentzialtasuna kontuan hartuz.	15.000
17	Kontserbatzeko interesa duten baso kiropteroen espezieen populazio erroldak garatzea.	25.000
18	KBE / HBBE baso kiropteroen espezieen natura babeslekuaren georreferentziari buruzko erregistro bat sortzea.	4.000

2.2.- Larreak

Kod.	Jarduera	Kostua (€)
19	KBE / HBBE larreak antolatzeke proiektuak prestatzeko eta aurrera eramateko lana sustatzea.	60.000
20	Jardunbide egokiei buruzko gidaliburua idaztea KBE / HBBEko mendi publikoetako larreen aprobetxamendurako.	5.000
21	Abeltzainen eta toki erakundearen artean banatzea jardunbide egokiei buruzko gidaliburua KBE / HBBEko mendi publikoetako larreen aprobetxamendurako.	2.000
22	6230* habitata kudeatzea ganaduaren presentzia bultzatuz eta abeltzaintzako azpiegiturak instalatuz.	20.000
23	Tximeleten espezieen presentzia aztertzea eta haien mehatxu maila. Horiek kontserbatzeko programa bat diseinatzea, larreen habitata kudeatzeko neurri egokiak ezarri.	10.000
24	Tximeleta berezien espezieentzat eta bereziki <i>Lycena hippothoe</i> , <i>Parnassius apollo</i> , <i>Satyrus pruni</i> , <i>Polymathus daphis</i> eta <i>Phengaris arion</i> espezieentzat lehentasunezko guneen kontserbazioa bermatzea.	6.000
25	Zaintzarako planak zehaztea, ezartzea eta mantentzea, basoetako funtsezko elementuen multzoaren flora espezieen tokian tokiko populazio, habitat eta bestelako baldintzatzaileen egoeraren jarraipen sistematikoa egin ahal izateko.	25.000
26	<i>Dactylorhiza sulphurea</i> orkidearen ex-situ-ko ugalketa programa bat diseinatzea eta hedapen potentzialleko eremuak zehaztea eta berriro sartzeko eta inguruneari egokitzeko protokoloak prestatzea.	9.000
27	Mirotz zurien eta urdinen lurralde guztien eta kokaleku posibileen populazio erroldak egitea KBE / HBBEren barruan.	15.000
28	Mirotz zurien eta urdinen habiak dituzten finketako jabe edo maizterekin akordioak egitea, uzten garaian horiei eragitea saihestu ahal izateko.	15.000



2.3.- Zohikatzen guneak

Kod.	Jarduera	Kostua (€)
29	Hezeguneak eta zohikatzen higroguneak kontserbatzeko eta erabiltzeko plana diseinatzea eta abiaraztea, lehentasunezko ekintzak jasoz.	15.000
30	7210 habitataren gune zehatz batzuetan belarra mozteko saioka aurrera eramatea, <i>Cladium mariscus</i> -i, bestelako flora espezie batzuei eta haiekin lotutako inguruneei laguntzen dien erabilera tradizional gisa, helofitoen beste espezie batzuen aldean (hala nola lezka).	15.000
31	7230 habitataren kalitatea hobetzea (zohikatz txiki alkalinoak), sasitza kontrolatuz, bereziki Herrera mendateko zohikatzen gune txikian, bertan <i>Senecio carpatanus</i> espeziea azaltzen baita.	6.000
32	Zohikatzen guneen funtsezko elementuak multzokatzeko flora espezieen tokian tokiko populazioen, habitaten eta bestelako baldintzatzaileen egoera sistematikoaren jarraipena egitea ahalbidetuko duten sei urteko zaintza planak definitzea, ezartzea eta mantentzea.	25.000
33	Perimetroan hesiak jartzea eta <i>Senecio carpatanus</i> -en habitata egokitzea Herrerako mendatean.	4.000
34	<i>Berula erecta</i> eta <i>Senecio carpatanus</i> espezieen germoplasmako ex-situ-ko ugalketa eta bilketa programa bat diseinatzea (haziak eta propaguluak) eta hedapen potentzialleko eremuak zehaztea eta berriro sartzeko eta inguruneari egokitzeko protokoloak prestatzea.	18.000

2.4.- Ingurune erruderalak

Kod.	Jarduera	Kostua (€)
35	Zaintzarako planak zehaztea, ezartzea eta mantentzea, basoetako funtsezko elementuen multzoaren flora espezieen tokian tokiko populazio, habitat eta bestelako baldintzatzaileen egoeraren jarraipen sistematikoa egin ahal izateko.	20.000
36	<i>Peucedanum officinale</i> eta <i>Teucrium botrys</i> azaltzen diren tokiak zehatz-mehatz ezagutzea eta kartografiatzea, kokaleku horien luberriketa, altxazio edo erabilera aldaketa prebenitzeko.	(Aurrekoan barne)

2.5.- Ibaia eta ibarren inguruneak

Kod.	Jarduera	Kostua (€)
37	Inpaktuek (kontrolik gabeko isurketak, higadurak eta abar) ukitutako eremuak berreskuratzea, gune horien ingurumenaren aldetiko eraberritzeak aintzat hartuz.	40.000

KBE/HBBE ES2110018 III. eranskina (2016ko urria)

25



38	7220* habitataren azalera potentziala zehaztea eta kartografiatzea, haren berreskurapenik handiena sustatu nahian.	5.000
39	7220* habitataren tokiko erregimen hidrologikoa definitzea eta mantentzea, hari eusteko gutxieneko emari ekologikoa ezarri.	15.000
40	Tobaren eraketaren gaur egungo puntu dinamiko eta ebolutiboa zehaztea, dinamika hidrologikoaren, emarien eta uraren kalitatearen dinamika ezagutzan sakonduz, lur azpiko fluxuetan arreta berezia jarri, etorkizunean izango duten bilakaera aurreikusi ahal izateko.	10.000
41	Habitat hauen eta haien lotutako espezieen originaltasuna agerian jartzen dituzten seinaleak eta zabalkunde materialak prestatzea.	4.000
42	Eremuei lotutako fauna ornoduna eta ornogabearen espezieen, haien kontserbazio egoeraren eta mehatxu mailaren berri ematea eta hezeguneak kontserbatzeko garrantzia jakinaraztea.	4.000
43	KBE / HBBeKo komunitate astazikoloaren banaketari buruzko azterketak egitea eta habitataren edota espezieen gaineko jarduketak neurriak ezartzea.	20.000
44	Ibai karramarroa KBE / HBBeKo erreken eta putzuen sarean zabaltzeko plana diseinatzea eta aurrera eramatea, kokalekuen arteko aldatetarak eginez.	6.000
45	Ibai tartetako uretan beheko urtean behin laginketak egitea ibai karramarroaren presentzia baieztatutik dagoenean, bai eta espezie horrek kolonizatu ez dituen putzuetan ere, karramarro gorrien eta seinale karramarroaren kolonizazio maila zehazteko edota espezie horiek sistema horien inbasioaren atzemate goiztiarra atzemateko.	6.000
46	KBE / HBBeKo putzu txikiagoetan fauna aloktonoen populazioak kontrolatzeko programa diseinatzea eta garatzea, karramarro gorrien eta seinale karramarroaren presentzia baieztatutik dagoenean.	15.000
47	KBE / HBBeKo bisoi europarraren eta igarabaren banaketa eta populazio egoeraren berri izateko populazio eroldak garatzea.	20.000
48	Bisoi amerikarraren populazioak kontrolatzeko programari jarraitzea.	12.000

2.6.- Harkaitzak eta antzeko inguruneak

Kod.	Jarduera	Kostua (€)
49	Harkaitzen eta antzeko inguruneen funtsezko elementuen multzoko flora espezieen populazioen, habitaten eta bestelako baldintzaileen egoera sistematikoki jarraitzea ahabidetzen duten zaintza planak zehaztea, ezartzea eta iraunaraztea.	25.000
50	Harkaitzetatik hurbileko guneeetan sasitzan eta pagadietan soilguneak zabaltzea, talde honetako espezie batzuen presentziarik gabeko kokalekuak jarduketa eremu zehatz gisa hautatuz (Centaurea lagascana, etab.).	5.000

KBE/HBBe ES2110018 III. eranskina (2016ko urria)

26

51	Funtsezko elementu gisa definitutako harrapari harkaiztarren lurralde eta kolonia guztien populazio erroldak egitea, bai ezagunenak bai kokalekuak izan daitezkeenak bai utzi dituzten lurraldeenak.	25.000
52	Belatxinga moko gorriaren populazio errolda zehatza garatzea, populazio mailak zehazteko asmoz.	18.000
53	Bonelli arranoaren populazioaren urteko jairailpena egiten segitzea, bai eta KBE / HBBEn kokatu ohi diren bikote ugaltzaileena ere.	15.000
54	Hiru urterik behin prospekzioak egitea ugatzarentzat interesekoak diren gune nagusietan urriaren 1etik maiatzaren 15era bitartean (sakabanatzeko eta ugalketa lurraldeetan kokatzeko epealdia), betiere aleen kopurua zehazteko, kokatzen diren guneak aztertzeke, etab.	15.000
55	KBE / HBBEko sare elektrikoek hegaztiak eta, oro har, faunari dakarkieten arriskua balioztatzea eta erakunde titularrekin elkarlanean arrisku ildoan jarduketak buruzko plan bat prestatzea, talkaren kontrako gailuak eta elektrokuzioaren kontrako neurriak jarri ahal izateko.	25.000
56	KBE / HBBEn Bonelli arranoarentzat dagoen potentzialtasuna aztertzea, jarduketak guneak zehazteko, habitata hobetzeko eta haren populazioaren sendoketari begira gune potentzialak ezartzeko.	10.000
57	KBE / HBBEren barruan ugatzarentzat interes bereizitatzat hartutako guneetan ingurunearen potentzialtasuna aztertzea eta haren hobekuntza eta kontserbaziorako jarduketak proposatzea.	15.000
58	Bonelli arranoarentzat egokiak diren guneetan usategiak eraikitzea eta mantentzea.	10.000
59	Harri multzoak eraikitzea eta mendiko untxiaren populazioa sendotzea, Bonelli arranoarentzat egokitzat jotzen diren guneetan.	10.000
60	Sartzeko debekua, aldi baterakoa edo iraunkorra, seinaleztatu Bonelli arranoaren eta sai zuriaren habien inguruko guneetan.	8.000
61	Baimendutako eskalada guneak mugatzeko seinale eta informazio panelak jartzea.	10.000
62	Baimendutako guneetatik kanpo kokatutako eskalada ekipamenduak kentzea.	15.000
63	Haitzuloetako kiroptero eta kiroptero antropofiloen espezieen populazio erroldak egitea harkaitzen eta antzeko inguruneen funtsezko elementuen multzoan.	25.000
64	KBE / HBBEko haitzuloetako kiropteroen eta kiroptero antropofiloen espezieen babesleku natural eta artifizialen erregistro bat sortzea georreferentziak erabiliz.	4.000

2.7.- Anfibioak eta narrastiak

Kod.	Jarduera	Kostua (€)
65	Anfibioen eta narrastien funtsezko elementuaren espezieen populazio mailak eta banaketa eremua zehaztea.	20.000
66	KBE / HBBEn narrastien funtsezko elementuen espezieentzat interes gehien duten eremuen mapa bat prestatzea.	4.000

KBE/HBBE ES2110018 III. eranskina (2016ko urria)

27

67	Ganaduak eta bestelako jarduera batzuek kontserbazio intereseko fauna eta floraren populazioen gainean izan dezaketen eragina aztertzea, perimetroko hesiak instalatuz modu esperimentalean, goiko larre, putzu eta idoietan.	16.000
68	Putzu horien inguruan askak eraikitzea.	7.500
69	Arabako hegoaldeko mendilerroetako ureztatze putzuak egokitzea eta birgaitzea, iteera arrapalak instalatuz, hesiak aldatuz edo ibarrak landaretzarekin birlاندatuz.	30.000
70	Anfibioak ugaltzeko habitat potentzial gisa, putzuak egokitzea perimetroan hesiak jarri, KBE / HBBEn eraikitako aska berrien hustubideetan.	15.000
71	KBE / HBBEko habitat potentzialaren egokitasuna aztertzea <i>Pelobates cultripes</i> apo ezpoidun arruntarentzat eta <i>Rana dalmatina</i> baso igel jauzkariarentzat.	5.000
72	KBE / HBBEko putzu sarean eta erreketan <i>Rana dalmatina</i> igela hedatzeko programa bat diseinatzea, espeziearen lekualdaketak eginez.	6.000
73	KBE / HBBEren barruan kontserbazio interesa duten narrastien populazioen artean harrapaketenengatiko hilezkortasun mailak aztertzea.	15.000

2.8.- Konektibotasuna

Kod.	Jarduera	Kostua (€)
74	KBE / HBBEren barruan konektibotasun ekologikoa hobetzeko proiektu bat prestatzea eta beharrezko neurriak abiaraztea, drainatzeak, hesiak, landu gabeko lursailak edota bestelako egiturak baliatuz, ibai sareen eta hezeguneen arteko konektibotasuna bultzatzeko.	36.000

3.1.- Biodibertsitateari buruzko ezagutza eta informazioa

Kod.	Jarduera	Kostua (€)
75	Aldian behin EUNIS landarediaren mapa eta habitaren mapa eguneratzeko protokoloa zehaztea eta, horretarako, bereziki azpimarratzea bilakaera naturalak edo gizakiaren esku hartzeak eragindako aldaketak, bai eta azalera murriztuko eta aurreko kartografiaren antzeman ez diren habitatei buruzko ezagutzen inguruko hobekuntzak sartzea ere.	6.000
76	Basoko fauna eta florarentzat balioa duten edo berezitasun geologikoa duten elementu natural eta geomorfologikoen inbentario ireki georeferentziatu bat sortzea eta modu jarraituan eguneratzea.	15.000
77	Habitaten eta babes bereziko araubidean dauden basa espezieen kontserbazio egoerari buruzko fitxa egitea.	3.000
78	Eremuan aurrera eramandako jarduera zientifiko edo ikerkuntzazkoetan lortutako emaitzen zabalakundea sustatzea, jendaurrean jarri eta, horretarako, argitalpenak, internetak, hitzaldiak eta abar baliatuz.	20.000



KBE/HBBE ES2110018 III. eranskina (2016ko urria)

28

79	Zerbitzuetako pertsonalari zuzendu beharreko prestakuntza ikastaroak garatzea, betiere agiri honetan kudeaketarako proposatutako jarduketak, erregulazioak eta gidalerroak jakinarazteko eta funtsezko elementuak identifikatzeko.	6.000
80	KBE / HBBe basoko suteak prebenitzeko planak prestatzea.	30.000
81	KBE / HBBe basoko suteen kontra borrokatzeko prebentzio neurriak diseinatzea eta abiaraztea.	300.000
82	Azterlan bat egitea KBE / HBBe kontsebazio eta kudeaketa tresnak aplikatzeagatik errenta murrizten duten jarduerari eta errenta galera hori berdintzeko zenbateko eta bitartekoel buruzkoa	6.000
83	KBE / HBBe biologia aniztasunaren eta haien ekosistemek eskaintzen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuen balio ekonomikoa aztertzea.	6.000
84	KBE / HBBe datoen eta Martiodako Faunaren Suspertegian sartzen diren basa espezie guztien erregistro informatikoa egitea georreferentziak adierazita.	3.000
85	Gune beltzen mapa bat egitea; bertan, honako hauei buruzko informazio georreferentziatua jasoko da: eremu baso faunaren espezieen artean izandako heriotzak, betiere linea elektrikoan edo beste azpiegitura batzuen aurka izandako talkengatik eta elektrokutatuta, tiroz, pozoiz, harrapatuta edota heriotza ez naturalen ohiko beste edozein arrazoiagatik.	4.000
86	Eremuak erabiltzen dituzten abeltzain, ehiztari, mendiko elkarte eta beste kolektibo batzuei zuzendutako informazio kanpaina bat egitea puntu beltzen mapa hori buruz eta haien lankidetzaz sustatzea hori prestatzeko lanean.	9.000
87	Urtero KBE / HBBe basoko faunako heriotza ez naturalen, hartutako neurri zuzentzaileen eta horien emaitzen inguruko txostena egitea, eta, horrela, interesa duten pertsonen eta erakundeek horretara jo ahal izatea bermatzea.	3.000

3.2.- Komunikazioa, hezkuntza, partaidetza eta herritarren kontzientzia

Kod.	Jarduera	Kostua (€)
88	Arabako Foru Aldundiaren webgunean KBE / HBBe buruzko atal zehatz bat sortzea, eremuan garatzen diren lanen eta azterlanen berri emateko.	-
89	Habitatak, flora, fauna eta prozesu ekologikoak kontsebatzeko jarduketa, gidalarro eta erregulazioel buruzko komunikazio eta informazio programa bat sortzea eta biodibertsitatearen kontsebazioari lagun diezaioketen jardura tradizionalen gainekoa ere, ukituak edo jarduketa horietan aktiboki inplikatuak izan daitezkeen gizarte sektoreei zuzenduta.	6.000
90	KBE / HBBe balioei buruzko informazio panelak instalatzea, bai eta kontsebaziorako garatutako jarduketei buruzkoa ere, eremuen barruan bisitarik gehien hartzen dituzten guneetan (aisialdi guneak eta abar).	15.000

KBE/HBBe ES2110018 III. eranskina (2016ko urria)

29

91	Hezkuntza kanpainak eta ingurumenaren aldeko sentsibilizazio zehatzei buruzko kanpainak garatzea, honakoak ezagutarazteko: habitata eta funtsezko elementuetako espezieak eta horri lotutako kudeaketa iraunkorra.	9.000
92	Arabako hegoaldeko mendilerroetako KBE / HBBEko kudeaketa eta kontserbazioan inplikaturako ingurumen administrazio eta administrazio sektorialen arteko topaketa bilgune bat sortzea eta garatzea: administrazio batzararak, udalak, Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta abar bilduko dituen bilgunea, alegia.	6.000
93	KBE / HBBERi eta haren helburuei buruz herritarrek duten ezagutza, jarrera, konpromisoa eta inplikazioa eta jokabidea aztertzeako aldizkako ebaluazioak egitea.	3.000

3.3.- Gobernantza

Kod.	Jarduera	Kostua (€)
94	Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren eta eremua osatzen duten toki administrazioen arteko lantalde bat osatzea, kontserbazio eta kudeaketa tresnen erregulazio, gidalerro eta jarduketan aplikazioan laguntzeko.	4.000
95	Habitaten, flora eta fauna espezieen eta eremuko prozesu ekologikoen kudeaketan eta kontserbazioan eragina izan dezaketen jarduketan erregistro bat sortzea.	4.000
96	KBE/HBBEa osorik edo zati batean aplikazio eremu duten kudeaketa agiriak berriro aztertuko dira, naturagune honen kudeaketa agiriaren ezarritakoari egokitu daitezkeen.	-

1.587.500

JAUARDUEREN KOSTUA, GUZTIRA



KBE/HBBE ES2110018 III. eranskina (2016ko urria)

30